



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abuztuaren 3an

59 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko-artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzeko aplikaturiko irizpide eta prozedurei buruzkoa (2. or.).
- Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Olaztiko Saihesbidearen obren aurrekariei eta esleipenari buruzkoa (6. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (9. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko-artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzeko aplikaturiko irizpide eta prozedurei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako ondoko txostena argitara dadila agintzea: Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko-artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzeko aplikaturiko irizpide eta prozedurei buruzko fiskalizazio-txostena.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko-artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzeko aplikaturiko irizpide eta prozedurei buruzkoa

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Laguntzak emateko eta horien jarraipena egiteko prozeduraren deskribapen laburra (2. or.).
 - III. Helburua eta norainokoa (4. or.).
 - IV. Ondorioak eta gomendioak (4. or.).
- Eranskina:** Vianako Printzea Erakundeak aurkeztutako alegazioak (5. or.).

I. SARRERA.

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldearen ekimenez, 1997ko ekainaren 23an erabakia hartu zuen Kontuen Ganbarari fiskalizazio-txosten bat egin zezan eskatzeko, "Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondasun higigarriak kontserbatu eta zahar-

berritzeko eta deklarazio bidez kultur intereseko-tzat jotzen diren ondasunei aplikaturiko irizpide eta prozedurei buruzkoa, indarreko legediaren arabekoak diren ikusteko".

Eskaera horren ondorioz, Kontuen Ganbarak lan hau egitea bere 1997ko jarduera-planean sartu zuen.

II. LAGUNTZAK EMATEKO ETA HORIEN JARRAIPENA EGITEKO PROZEDURAREN DESKRIBAPEN LABURRA.

Foru Komunitateko kultur intereseko ondarearen zati garrantzitsu bat, bai kopuruz bai kalitatez, izaera higigarriko ondasunek osatzen dute, nagusiki erretaulek, organoek, koadroek, eskulturek eta urrelanek.

Horiek babesten eta kontserbatzen laguntzeko, Nafarroako Gobernuak bi prozeduraren bitartez jarduten du, funtsean: dirulaguntzak ematea eta Administrazioak zuzenean esku hartzea laguntza teknikoko kontratuen bitartez.

Dirulaguntzak

Abenduaren 4ko 233/1985 Foru Dekretuak laguntza-sistema bat ezarri zuen. Sistema horren alderdirik aipagarrienak hauexek dira:

- Laguntzen xedea: Nafarroako ondare historiko-artistikoan sarturiko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritzea, Nafarroako Monumentuen Katalogoan jasotakoak lehenetsiz.
- Onuradunak: Kultur intereseko ondasun higigarrien jabeak eta haien gaineko eskubide errealeen titularrak.
- Laguntzaren zenbatekoa: partikularrei emandako laguntzei dagokienez, gastuen ehuneko 50erainokoa, eta entitate publiko, erlijioso, kultural edo sozialen kasuan, ehuneko 75erainokoa.

- Eskakizuna. Vianako Printzea Erakundeari (aurrerantzean, VPE) zuzenduko zaio, eta hauxe erantsiko zaio:

- . Eskatzailearen nortasunaren frogagiria.

- . Jabetzaren edo eskubide errearen titularitatearen frogagiria.

- . Oroitidazki teknikoak, dagokion teknikariak idatzia eta gutxienez ere honako hau jasoko duena:

- * Ondasunaren deskribapena eta balioespena.

- * Egungo egoera: dokumentu grafikoak, argazkiak...

- * Egin beharreko lanaren deskribapena, ekipa teknikoa aipatuz.

- * Aurrekontuaren aurrerapena.

- * Exekuzio-epeak.

- * Eskaturiko bestelako laguntzak.

- Laguntza ematea: urtero eginiko deialdi baten bidez, eta VPEk txostena eman ondoren –bertako eta Artzapezpikutegiko langileek osaturiko Batzorde Tekniko batek egina–, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak nagusiki honako irizpide hauei jarraituz erabakitzen du laguntza ematea:

- . ondasunaren interes artistiko eta kulturala.

- . zaharberritzeko premia.

- . aurrekontu-erabilgarritasuna.

- Laguntzaren jarraipena eta ordainketa. VPE-ari dagokio zaharberritzea jarraibide teknikoak eta baimenduriko epeak errespetatuz egiten dela kontrolatzea eta bermatzea, hala nola, dirulaguntza kobratu ahal izateko aurretiazko betekizun gisa, onuradunak ekartzen dituen frogagiriak onestea ere.

- Kontraprestazioak. Onuradunak bere gain hartuko du ondasuna publiko zabalaren irismenean jartzeko obligazioa, baita noiz edo noiz erakusketak publikoetarako lagatzekoa eta VPEari ondasuna zein baldintzatan besterenduko duen, halako asmoa duenean, jakinaraztekoa.

1995ean ez zen laguntzarako urteroko deialdia egin, aurreko urteetakoak ziren eta erantzun ez zitzaieen eskakizun ugari zeudelako; hala ere, laguntzen ukatzea ez zen foru aginduetan argitaratzen, 1996ko eta 1997ko ekitaldietan ez bezala.

Zuzeneko eskuhartzeak

Aurreko prozeduraz gain, Nafarroako Gobernuak, 1996tik aurrera, kultur intereseko ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea burutzen du, horien garrantziak eta egoerak Foru Administrazioaren zuzeneko eskuhartzea beharrezko egiten baldin badute. Eskuhartze hori espreski aipatzen du Espainiar Ondare Historiko Artistikoari buruzko 16/1985 Legeak; bertan ezarri ziren eskudun den Administrazioaren zaintza-jarduera eta ahalmen bereziak ondasun horiek mantendu eta kontserbatu ahal izateko beharrezkoak diren ekintzak agindu eta burutzeko. Kasu horietan, VPEak honela jarduten du, modu laburrean adieraziz:

- Ondasuna une horretan zein kontserbazio-egoeratan aurkitzen den eta zaharberritua izateko duen premia agerian jartzen dituen txostena.

- Enpresa esleipen-hartzailea hautatzeko lehiaketa.

- Zaharberritzeko gastuen ehuneko 100 finantzatzea.

1996 eta 1997 artean, hiru eskuhartze izan dira lehiaketa formarekin –Gaiareren Mausoleoa eta Lapoblación-eko eta Otsagiko erretaulak– 23 milioi pezetako zenbatekoa izan dutenak, gehi 7 milioi, 1998rako hitzarturiko gastuei dagozkienak.

Laburbilduz, eta kontabilitate-datuei jarraikiz, aurreko gastuen –bai laguntza berekien bai lehiaketen kostuaren– egozpena duen aurrekontu-lerroaren betetzea honakoa izan da, 1991tik aurrera (milioitan):

| Ekitaldia | Dirulaguntzen zenbatekoa (milioitan) | Zaharberritze-kopurua | Kontratazioen zenbatekoa (milioitan) | Zaharberritze-kopurua |
|-----------|--------------------------------------|-----------------------|--------------------------------------|-----------------------|
| 1991 | 15 | 28 | - | - |
| 1992 | 17 | 25 | - | - |
| 1993 | 12 | 10 | - | - |
| 1994 | 14 | 13 | - | - |
| 1995 | 24 | 18 | - | - |
| 1996 | 23 | 15 | 8 | 1 |
| 1997 | 14* | 14 | 14* | 2 |

* Behin-behineko datuak

Beraz, azken zazpi urteotan Nafarroako Gobernuak guztira 119 milioi inbertitu du 123 zaharberritze-jarduketatan.

Dirulaguntzen hartzaileei dagokienean, ia-ia dirulaguntzen bi herenen onuraduna Iruñeko Artzapezpikutegia da –izaera horretako ondasun gehien jabe edo horien gaineko eskubide errealeen titular gisa–, eta horrek, eskakizunari, obra bakoitzaren zaharberritze-kostuaren aurrekontu bat edo gehiago eransten dio, bere iritziaren ara-

bera. Aurrekontu horietan, oro har, ezberdintasun nabariak antzeman daitezke eskaintako prezioei dagokienean.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA.

Parlamentuaren eskakizunaren ondorioz, fiskalizazio-lanaren helburua hauxe izan da:

1. helburua. Egiaztatzea aplikatzekoa den araudiari jarraituz eman direla laguntzak.

2. helburua. Emandako laguntzak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko asmoz VPEak ezarritako prozedura ebaluatzea.

3. helburua. Zaharberritzaileak kontratatzekeo Vianako Printzea Erakundeak burutu dituen hautaketa- eta esleipen-prozedurak indarreko araudian ezarritakoari jarraitzen zaizkiola egiaztatzea.

Aurreko helburuak erdiesteko, Kontuen Ganbara honek erabili ohi dituen kontu-ikuskapeneko prozedurak eta programak aplikatu dira. Horiek, bere Kontu Ikuskaritzaren Gidan daude bildurik, eta Espainiar Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Kontu Ikuskaritzako Arau eta Printzipioek garatzen dituzte. Bereziki, dirulaguntzen ondoriozko gastuei eta laguntza tekniko kontratuen legezotasuna aztertzeari dagozkion prozedura eta programak aplikatu dira.

Aztergai izan den denbora-epeari dagokionez, nagusiki 1994tik 1997ra bitarteko deialdiak eta 1996 eta 1997ko ekitaldietako hainbat laguntza zehatzen espedienteen lagin bat ikertu dira. Baita ere, Foru Administrazioak zuzenki kudeaturiko hiru zaharberritze-kontratuei dagozkien dokumentuak berrikusi dira.

Zelaiko lana kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek osaturiko taldeak burutu du, 1997ko azaroan, eta, gainera, Kontuen Ganbarako zuzenbide-, informatika- eta administrazio-zerbitzuen etengabeko lankidetzak eskura izan du.

Vianako Printzea Erakundeko langileei lan hau egin ahal izateko lagundu izana eskertu nahi diegu.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Parlamentuak egindako eskakizuna eta eginko fiskalizazioaren norainokoa kontuan izanik, buruturiko lanaren ondorio nagusiak adierazten dira jarraian.

• Oro har, ondasun higigarriak zaharberritzeko Vianako Printzea Erakundearen dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiari jarraituz eman, izapida-

tu eta kontrolatu dira, eta, gainera, denboran zehar bilakaera positiboa izan dela ikus daiteke, espedientei gehituriko dokumentuen edukari eta kalitateari dagokienez. Dena den, hainbat alderdi berrikusi eta sendotzeko beharra nabaritzen da; hori dela-eta, honako hau gomendatzen da:

* *Urteroko deialdia egiten duen Foru Aginduan eskakizunak hartzeko ezarritako epea errespetatzea.*

* *Dirulaguntzaren portzentaia zehazteko irizpideak, hautaturiko zaharberritze-lan bakoitzari aplikatzekoak direnak, idatziz jartzea.*

* *Dirulaguntza-eskakizunari gehituriko aurrekontu ezberdinak balioetsi eta hautatzeko azterlan teknikoaren konstantzia uztea, dokumentu bidez.*

* *Laguntza-eskatzaileek aurkezturiko instantziari zenbat aurrekontu erantsi behar dizkioten eta horien edukia ezarriko dituzten arau orokorrak ematearen komenigarritasuna aztertzea.*

* *Hautaketarako Batzorde Teknikoaren gaur egungo osaera aztertzea, dirulaguntzak eskuratzeko interesa duten alderdietako bat hori osatzen ari denez gero –Iruñeko Artzapezpikutegia–.*

• Ondasun higigarriak zaharberritzeko asmoz Vianako Printzea Erakundeak eginiko laguntza teknikorako kontratuak, oro har, indarreko araudiari jarraituz exekutatzen dira. Dena den, Kontuen Ganbara honek honako hauek komenigarri direla adierazten du:

* *Aurkezturiko proposamenen kopuruari buruzko ziurtagiri bat espedienteari gehitzea.*

* *Instantzien erregistroan lehiaketa bateko eskaintzak onartzeko ordutegia kontrolatzea, kasuren batean hori gainditu dela ikusi ahal izan baita, transkripzio mekanikoak agertzen duenez. Ezertan galarazi gabe aurrerantzeko hautaketa-prozesuetan eskakizunak hartzeko ordutegia Foru Administrazioan aplikatzen den ordutegi orokorrak bestelakoa izatearen egokitasuna aztertzea.*

• Dirulaguntzen eta kontratuen ondoriozko gastuak aurrekontu-lerro berari egozten zaizkio. Gure ustez, kontabilitate-informazioa hobeki erakustearren eta gastuaren benetako izaeraren arabera, komenigarria litzateke lerro hori bitan banatzea: bata, transferentzien gastu berekiak jasotzeko, eta, bestea, zaharberritze-kontratuatarako.

Txosten hau eman da lan hau egitearen arduradun den Ignacio Cabeza del Salvador kontuhartzaile jaunaren proposamenez.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA. VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.

Nafarroako Kontuen Ganbarak 1998ko urtarrilaren 30ean emandako "Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako ondare historiko-artistikoko ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharbertzuko aplikaturiko irizpide eta prozedurei" buruzko fiskalizazio-txostenari dagokionez, honako zehaztapen hauek jakinarazi behar dizkizut:

1. Dirulaguntzei buruzko gomendioak egokiak dira, eta Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Ataleko funtzionarioek Kontuen Ganbarak adierazitako ildoan lanean dihardute.

2. Hautaketarako Batzorde Teknikoaren osarari dagokionean, beharrezkoa da esatea Iruñeko Artzapezpikutegiko kideak zaharbertzuearen xede diren ondasunen edo parrokien finantza-egoeraren berri ematera soilik etortzen direla. Laguntzen arloko hautaketa, izapidatzea eta erabakia Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren eskuetan daude, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak horretarako proposamena egin ondoren.

3. Laguntza teknikorako kontratuei dagokienez, hemendik aurrera Kontuen Ganbarak adierazten duen moduan jardunen da, hau da, aurkezturiko proposamenen kopuruari buruzko ziurtagiri bat gehituko zaio espedienteari, eta ordutegi-muga (baldintza-sortatik ezabatua zegoena) aldatu egi-

nen da, ordutegi-muga eta Erregistro Orokorren itxierarena berbera izan daitezen.

4. Aurrekontu-lerroa banatzeari buruzko iradokizunak, transferentziaren gastu berekiak eta zaharbertze-kontratuenak jaso ahal izateko, komenigarria dirudi. Alabaina, horren jatorria zalantzazkoa da, aipaturiko aurrekontu-lerroaren dotazioa garrantzitsua ez den bitartean. Azken batean, joera hauxe da: ondasun higiezinak zaharbertzeko aurrekontu-lerroan erabilitako ereduari jarraitzea. Lerro hori banatua dago, alde batetik, Kultur Intereseko Ondasun deklaraturiko eraikinetarako kontusail oparo batean, eta, bestalde, zenbateko txikiagokoak eta dirulaguntzetarako erabiltzekoak diren beste kontusail batzuetan. Nolanahi ere, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren joera ahalik eta obra gehienak zuzenki kontratatzean datza, eta helburu hori lortzen joanen da Nafarroako ondare higigarriaren egoerari buruzko informazio-maila handitzen doan neurrian.

Hasierako nire oharra errepikatuko dut: Administrazioeko erakundeen arteko lankidetzaren ezinbesteko baldintza da herritarrei emandako zerbitzu publikoak hobetzeko. Kasu horretan, Kontuen Ganbarak betetako fiskalizazio- eta orientazio-eginkizuna derrigorrezko gertatzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 10ean

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaria Nagusia

Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Olaztiko Saihesbidearen obren aurrekariei eta esleipenari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Olaztiko Saihesbidearen obren aurrekariei eta esleipenari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko martxoaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina, Olaztiko Saihesbidearen obren aurrekariei eta esleipenari buruzkoa

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (6. or.).
- IV. Ondorioak (7. or.).
 - IV.1. Proiektuari dagokionez (7. or.).
 - IV.2. Esleipenari dagokionez (7. or.).
 - IV.3. Aurkezturiko alegazioei eta eskakizunei dagokienez (8. or.).
 - IV.4. Obraren kostuari eta horren aldaketei dagokienez (8. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, "Unión del Pueblo Navarro" Parlamentari Taldearen ekimenez, 1997ko maiatzaren 26an erabakia hartu zuen Nafarroako Kontuen Ganbarari fiskalizazio-txosten bat egin zezan eskatzeko, "Olazti eta Ziordiko Saihesbidearen obren proiektua, obrak burutzea, Udalen eskakizunak, aldaketak, obra osagarriak eta obrak esleitzeko lanak egiteko Herrilan Departamentuan eginiko izapide guztiei" buruzkoa.

II. HELBURUA

Nafarroako Parlamentuak eginiko eskakizunari jarraituz, fiskalizazio-lanaren helburuak hauexek dira:

a) Obra-proiektua esleitzean indarreko araudia bete den egiaztatzea.

b) Kontratua esleitzean indarreko araudia bete den egiaztatzea.

c) Eskakizunak eta proiektuari aurkezturiko alegazioak aztertzea.

d) Obren burutzea aztertzea, eta aldaketak edo obra osagarriak ere bai.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan hau egiteko, Departamentuak eskaini zigon dokumentazioa aztertu dugu. Dokumentazio hori hiru karpetan jasota dago. Laburbilduz, karpeta horiek eduki hau daukate:

- 1. Karpeta. Enpresen Aldi Baterako Batasun (EABB) esleipen-hartzailearen dokumentazio orokorra.

- 2. Karpeta. Proiektuaren onespeneri eta esleipen-fasearen hasierari dagozkien foru aginduei buruzko dokumentazioa. Halaber, proiektuari aurkezturiko alegazioei buruzko dokumentazioa gehitu zaio.

- 3. Karpeta. Esleipenari, fidantza ezartzeari, kontratuari, obra-ziurtagiriei eta obrek iraun duten bitartean gertaturiko hainbat gorabeherari buruzko dokumentazioa.

Eskaerari jarraituz, obraren alderdi teknikoak ez ditugu aztertu.

Espedientean ez dira agertzen proiektuaren esleipenari dagozkion jarduketak. Azterturiko dokumentaziotik eta Departamentuko arduradunek emandako azalpenetatik ondorioztatzen da proiektua 1983an egin zela eta 1991n INARSA enpresak egokitu zuela.

Espediente horri dagokion dokumentazioa eskatu ondoren, espedientearekin zerikusia daukaten dokumentu batzuk eman zizkiguten, eta txostenaren zirriborroa eman eta gero espedientea aurkitu eta gure eskura jarri zuten.

Lan hau, honako hauek mugatu dute:

- Egiten ari den obra bat izateak. Horrek esan nahi du espedientearen etengabe osatzen ari dela, eta ez digu behin betiko ondorioz ateratzen uzten obraren kostuaz, desbiderapenez eta abarrez.

- Eskaintza-egileen proposamenik ez egoteak, esleipenaren ondoren, normalki, euren eskaintzak kendu egiten baitituzte. Jakina, espedientean

geratzen dena enpresa esleipen-hartzailearena da.

Zelaiko lana azaroan eta abenduan burutu zen.

Herrilan Departamentuko langileei guri lagundu izana eskertu nahi diegu, horrek gure lana erraztu egin baitu.

IV. ONDORIOAK

IV.1. PROIEKTUARI DAGOKIONEZ

Jatorrizko proiektua 1983koa da. 1991n mandatua eman zen egokitzapen bat egin zedin, eta honako honetan gauzatu zen: lotuneak osatu egin ziren, eta abiadura aldatzeko bideak gehitu zitzaizkien; kanpoaldeko bazterbideak zabaldu egin ziren, eta trazaduran hainbat hobekuntza egin zen. Hau da, funtsezko izaera duten aldaketak ekarri zituen egokitzapen horrek.

Eginiko azterketatik honakoa ondorioztatzen da:

- 1991ko Foru Aginduaren bitartez, kontratazio-espeditentea eta 7.500.000 pezetako gastua onetsi ziren.

- Esleipen-sistema zuzeneko esleipena izan zen: zazpi enpresari eskaintzak eskatu zitzaizkien, eta horietatik seik erantzun zuten. Eskaintzarik onuragarrienaren alde egin zen esleipena, 1991ko apirilean, 6.619.424 pezetatan, ehuneko 11,74ko beherapenarekin, exekuzio-epaia hiru hilabetekoa izanik.

- Aztertutako informaziotik ondorioztatzen da lana entregatzeko epea 1991ko uztailaren 31n amaitzen zela. Hilabete horretan bertan lehenengo bi ziurtagiriak onetsi ziren, 2.721.824 pezetako zenbatekoarekin. 1992ko martxotik aurrera, hainbat dokumentu daude Departamentuaren eta enpresa aholkuemailearen artean epea ez betetzeari eta aurkitutako akatsei buruzkoak. 1993ko martxoan enpresa esleipen-hartzaileak behin-behineko harrera formaliza zedin eskatu zuen, eta hori 1994ko otsailean egin zen, likidazio-aktaren bitartez. Akta horretan esaten denez, lana "zuzen egin da eta guztiz burutu da".

Hilabete horretan bertan onetsi zen behin betiko likidazioa.

- Aztertutako datuetatik ondorioztatzen da azkenean ordaindutako zenbatekoa 4.721.824 pezetakoa dela, hau da, esleitutako zenbatekoa baino ehuneko 29 gutxiago. Egin gabeko lanen ondoriozkoa da alde hori.

Laburbilduz, esan genezake esleipena ekonomikoki onuragarrien zen eskaintzari egin zitzaioela, publikotasunez; kontratua exekutatzean hainbat arazo, atzerapena eta zuzendaritza fakultatiboarekin desadostasunak izan zirela; lan gutxiago burutzearen ondorioz, esleitutako zenbatekoa baino ehuneko 29 gutxiago ordaindu zela, eta ez zela zehapenik ezarri.

Horregatik, azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela espeditenteak behar bezala artxibaturik eta erraz aurkitzeko moduan gordetzea. Bestalde, exekuzioan izandako atzerapena kontuan hartuz, horiek etorkizunean ekiditeko neurriak eta, hala bada, araudian aurreikusitako zehapen-neurriak hartu behar direla uste dugu.

IV.2. OBREN ESLEIPENARI DAGOKIONEZ

Bi gai aztertu behar dira:

IV.2.1. Prozedurari dagozkion alderdiak

Ikuspegi formaletik, bidezkoa da espeditentea osatua dagoela esatea, beharrezkoak diren dokumentuak eta txostenak agertzen direlako.

IV.2.2. Esleipenaren analisia

Esleipena egin zitzaion Navasfalt EABBri, uztailaren 11ko 2090/96 Foru Aginduaren bitartez, horretarako lehiaketa ebatzi ondoren. Kontratazio-organoaren erabakiaren aurretik egoki zen txosten teknikoa egin zen.

Txosten horrek, 96-7-1 data zeukanak, eskaintzen alderdi guztiak balioetsi zituen, eta honako emaitza hau agertzen zuen lehen hiru izangaiei zegokienez:

| Enpresa | Puntuak guztira | Borobilduta |
|----------------|-----------------|-------------|
| NAVASFALT EABB | 84,18 | 84 |
| CUBIERTAS EABB | 84,19 | 84 |
| FOMENTO EABB | 83,89 | 84 |

Emaitza horiek ikusirik, eta txosten teknikoak beste inolako azalpenik ematen ez duenez gero, Zerbitzuko Zuzendariak beste bat, osagarria, egin zuen, 96-7-4 data zeukana, eta hauxe adierazten zuen bertan: "Navasfalt EABBri lanera bidalitako langileriaren balioespena egiteko garaian, Obrako Buruzagiari dagokion saila zero punturekin balioetsi zaio, bere eskaintzan (obrako zuzendaritzarekin adostu beharrekoa) ez duelako izenez zehazten zein pertsonak, zein titulu eta esperientziarekin beteko duen postu hori.

Hala ere, aurkeztu diren eta EABBeko enpresetako langileriak osatzen dituzten pertsonen zerrendan, gaitasuna eta antzeko obretan espe-

rientzia frogatua duten pertsonak badaude; horregatik, eskaintzako zehaztapen-eza, bitartekoen gabezia baino, zerbitzua hobeto emateko ahalegin bat bezala uler liteke.”

Lehen zero puntu zituen gai honen balioespena egitean, Navasfalt EABBri emandako puntuazio berria 85,5 puntukoa da, eta beste biak 84 puntutan mantentzen dira; beraz, esleipena Navasfalt EABBri egin zaio.

Gure ustez, prozedura horrek errespetatu egiten ditu indarreko araudiak adierazitako prozedura-alderdiak.

IV.3. AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI ETA ESKAKIZUNEI DAGOKIENEZ

Guztira 15 entitate edo partikularrek aurkeztu zituzten alegazioak; horiek, otsailaren 28ko 630/96 Foru Agindu bidez ebatzi ziren.

Olaztiko Udalak zazpi eskakizun egin zituen, eta ezezkoa eman zitzairen, eginiko eskakizunak partzialki asetzeko hobekuntzak egin zitezkeela lau kasutan adierazten zen arren.

Ziordiko Udalak hiru eskakizun egin zituen, azpiko pasabide bati, bide bat asfaltatzeari eta eraikinaren kanpoaldeko lerrokadura definitzeari buruz. Lehen kasuan, egokiagotzat jo zen altxatuko pasabide bat egitea; bigarrena ezetsi egin zen, Gobernuak etorkizunean arazo hori konpon lezakeen errepide bat egiteko asmoa baldin bazuen ere; hirugarrenari dagokionez, egoki denean eginen zen definizio hori.

Udalaren lehenengo eskakizuna da 1997ko udako hilabeteetatik aurrera hainbat arazo sortarazi zuena. Gai honen inguruan, adierazi beharra daukagu badela ohar, gutun eta fax multzo bat, izandako elkarrizketen berri ematen duena.

Hamabi partikularrek alegazio bana aurkeztu zuten, titularitate-aldaketei eta finka guztia desjabetzeko eskakizunei buruzkoak. Horri buruz, esan beharra dago guztiak onartu zirela, bat izan ezik.

Ostalaritza-enpresa baten titularrak zortzi eskakizun aurkeztu zituen. Horietatik, bi onartu egin ziren; hiru baztertu egin ziren; bi ez ziren, hertsiki, alegazioak, eta, azkenekoari, hau da, kalteordaina eskatzen zuenari, dagokionez, adierazten zen egoki zenean balioetsiko zirela kalteak.

Beranduago, 630/96 Foru Aginduaren aurkako errekurtsu arrunta aurkeztu zuen, eta Nafarroako Gobernuaren 1996ko ekainaren 3ko erabakiaren bitartez ezetsia izan zen.

IV.4. OBRAREN KOSTUARI ETA HORREN ALDAKETEI DAGOKIENEZ

Lan hau egin den garaian obrak egiten ari dira; epea 1998an bukatuko da. Jarraian koadro bat azalduko dugu, une horretara arte ordaindutako ziurtapenak erakusten dituen.

| | Kontzeptua | Fakturatutako epea | F.A.-ren data | Aitorturiko obligazioak |
|------|--------------------------------|--------------------|---------------|-------------------------|
| 1996 | 1. ziurtap. | iraila | aza.-19 | 12.448.650 |
| | 2. ziurtap. | urria | aben.-2 | 15.710.690 |
| 1997 | 3. ziurtap. | azaroa | urta.-23 | 16.075.083 |
| | 4. ziurtap. | abendua | urta.-28 | 62.374.630 |
| | 5. ziurtap. | urtarrila | otsai.-25 | 65.149.604 |
| | 6. ziurtap. | otsaila | mar.-26 | 68.293.621 |
| | 7. ziurtap. | martxoa | api.-17 | 69.773.971 |
| | 8. ziurtap. | apirila | mai.-29 | 76.563.682 |
| | 9. ziurtap. | maiatza | ekai.-24 | 55.470.116 |
| | 10. ziurtap. | ekaina | abuz.-5 | 67.226.043 |
| | 11. ziurtap. | uztaila | abuz.-29 | 56.734.638 |
| | 12. ziurtap. | abuztua | irai.-23 | 75.753.015 |
| | 13. ziurtap. | iraila | urria-27 | 124.297.847 |
| | 14. ziurtap. | urria | aben.-22 | 32.222.190 |
| | 15. ziurtap. | azaroa | 98-01-21 | 79.956.150 |
| | 16. ziurtap. | abendua | 98-01-21 | 97.483.576 |
| | Ziurtap., guztira | | | 975.533.506 |
| | Hasierako esleipena | | | 1.642.223.577 |
| | Aldatutako esleipena | | | 1.541.485.554 |
| | Ziurtatzeke dagoena, teorikoki | | | 565.952.048 |

Prezio aldaketak

| | Kontzeptua | Fakturatutako epea | F.A.-ren data | Aitorturiko obligazioak |
|--|---------------------------|--------------------|---------------|-------------------------|
| | 1. ziurtap. | apirila | uzt.-18 | 408.682 |
| | 2. ziurtap. | maiatza | abuz.-25 | 102.430 |
| | 3. ziurtap. | ekaina | abuz.-25 | 119.768 |
| | 4. ziurtap. | uztaila | abuz.25 | 186.151 |
| | 5. ziurtap. | abuztua | 98-01-27 | 1.481.168 |
| | 6. ziurtap. | iraila | 98-01-27 | 2.636.334 |
| | 1. osag. | apirila | 98-01-27 | 784.475 |
| | 2. osag. | maiatza | 98-01-27 | 608.091 |
| | 3. osag. | ekaina | 98-01-27 | 735.290 |
| | 4. osag. | uztaila | 98-01-27 | 651.784 |
| | Prezio-aldaketak, guztira | | | 7.714.173 |

Aurreko datuek erakusten duten bezala, hasierako esleipenaren %59 gehi 7,7 milioiko balioa zuen ziurtagiri-multzoa aurkeztu zen, prezio-aldaketa kontzeptupean. 1491/97 eta 5281/97 foru aginduek hainbat kontradikziozko prezio eta aldaketa onetsi zituzten, aurrekontu-betetzea 3,8

milioitan eta 146,5 milioitan, hurrenez hurren, gutxiagotuz. Halaber, azken foru aginduak obra osagarriak onetsi zituen, 49,6 milioi pezetako zenbatekoarekin.

Ondorioz, esleipenean 100,7 milioi pezetako murrizketa gertatu zen.

Maiatzaren 29an bi foru agindu onetsi ziren, EABB esleipen-hartzailearen bi erreklamazio eze-tsi zituztenak, aurrekontu-kontusail bat ziurtatzeko erari eta kontradikziozko prezioei buruzkoak.

1997ko ekainaren 19an, beste Foru Agindu bat onetsi zen, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eskatzen ziona ondare-erantzukizuneko prozedura bati ekin ziezaiola enpresa eraikitzaileei kalteak ordaintzeko, horrelakorik behar balitz, Olaztin dagoen Altamirako zabortegia obra-hondakinak

uzteko erabiltzearen truke ordaindu behar duten prezioarengatik.

Prozedura hori sustatu zen Administrazioak kontratuz kanpoko nolabaiteko erantzukizuna izan lezakeela pentsatzeagatik. Horrelako espedienteak ebaztea Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eskumena da, eta Departamentu horrek, txosten hau idatzi arteko denbora-epean, ez du adierazpenik egin.

Lan hau egitearen arduradun den Jesús Muruzabal Lerga Kontuhartzaile jaunaren proposamenez eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (10. or.).

II. Helburua (10. or.).

III. Norainokoa (10. or.).

IV. Iritzia (11. or.).

IV.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez (11. or.).

IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (11. or.).

IV.3. Legezketasuna (11. or.).

IV.4. Kontuen Ganbararen aurreko txosteneko gomendioaren jarraipena (11. or.).

IV.5. Egoera ekonomiko-finantzarioa (11. or.).

V. Finantza-egoerako orriak (11. or.).

V.1. Aurrekontu bateratuaren likidazioa. 1996ko ekitaldia (12. or.).

V.2. 1996-XII-31ko egoera-balantze bateratua (13. or.).

V.3. Emaizta bateratuen kontua, 1996 (15. or.).

V.4. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera, 1996 (15. or.).

V.5. Lizarrako Udala. 1996ko aurrekontu ekonomikoaren betetze-egoera (16. or.).

V.6. Lizarrako Udala. 1996ko aurrekontu funtzionalaren betetze-egoera (16. or.).

V.7. Musika Patronatua. 1996ko aurrekontuaren betetze-maila (17. or.).

VI. Analisia, ondorioak eta gomendioak (17. or.).

VI.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (17. or.).

VI.2. Gertakariak (18. or.).

VI.3. 1996ko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa (18. or.).

VI.4. Aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (19. or.).

VI.5. Bestelako iruzkin orokorrak (19. or.).

VI.6. Interesa duten hainbat arlo (19. or.).

Eranskinak:

1. Udaleko organigrama, 1996ko abenduaren 31koa (26. or.).
2. Musika Eskola Patronatuko Organigrama, 1996ko abenduaren 31koa. (27. or.).

I. SARRERA

Lizarra Nafarroako erdialdean kokaturik dago, Iruñetik 45 kilometrora, eta zuzenbidezko 12.552 biztanle dauzka. Foru Komunitateko laugarren hiria da, biztanle-kopuruaren arabera.

Udalak lau erakunde autonomo dauzka: Almuđi Kultur Zentroko Patronatua, Kirol Patronatua, Gizarte Ongizateko Patronatua eta Musika Patronatua; Jurramendiko Mankomunitatean sarturik dago –horrexek egiten du ur-hornidurako eta zabor-bilketako zerbitzuen erabateko kudeaketa– eta Lizarrerriko Turismo Partzuergoan parte hartzen du.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioiko uztailleko 6/90 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Udalaren eta beronen erakunde autonomoen, Almuđi Kultur Zentroko Patronatuaren, Kirol Patronatuaren, Gizarte Ongizateko Patronatuaren eta Musika Patronatuaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea fiskalizatu egin ditugu, Udalak berak horretarako eskakizuna egin ondoren.

Toki Entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa funtsean lehen aipaturiko lege horiek, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

- a) Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1996ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.
- b) 1996ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, orokorki onartutako kontabilitate-printzipioei jarraikiz.
- c) Udalaren eta bere menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioaren legezkotasun-printzipioarekiko errespetua.

d) Udalaren egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak bere azken fiskalizazio-txostenean, 1993ko ekitaldiari buruzkoan, emandako gomendioak zein neurritan bete diren.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, Udalak berak eskatu ondoren, eta duen jarduketa-programari jarraituz, Lizarrako Udalaren eta bere erakunde autonomoen fiskalizazioa burutu du, 1996ko ekitaldiari dagozkiona.

Lizarrako Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka, eta bateraturiko kontabilitate-orriak dauzka, Udalari eta erakunde autonomo den Musika Patronatuari dagozkiolak.

Beste hiru erakunde autonomoek (Almuđi Taldeko Kultur Patronatua, Kirol Patronatua eta Gizarte Ongizateko Patronatua) ez dute aurrekonturik ezta kontu-likidaziorik egiten, eta euren gastu eta dirusarrerak Udaleko kontuetako atal ezberdinetan agertzen dira.

Udalaren eta Musika Patronatuaren gain eginiok lana dirusarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Hirigintzari dagokionean, gure lanaren kezka izan da Plan Orokorren betetzearen analisi orokorra egitea, horren garapeneko jarduketa zehatzak ikuskatu gabe.

Espaniako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun aproba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenean aurkitzen dira Lizarrako Udalaren eta bertako Erakunde den Musika Patronatuaren antolamendua, barne-kontrola, efikazia eta efizientzia hobetzeko beharrezko jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak.

Zelaiko lana 1997ko azaroan eta abenduan egin da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta bere Erakunde Autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioan aztertu duguna hauxe da: Lizarrako Udaleko eta bere erakunde autonomo den Musika Patronatuko kontabilitateko egoera-orriak, 1996ko ekitaldiari dagozkionak.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Gure iritziak, 1996ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioak nahiko ongi agertzen ditu, alderdi garrantzitsu guztietan, buruturiko jardura eta 1996ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera, eta indarreko legediari jarraituz prestatua izan da, honako honi dagokionean izan ezik: Udalak, ekitaldia amaitzean, kontusailen artean kreditu-transferentziak egin ditu, 7,5 milioiko zenbatekoa daukatenak, gastua egin ondoren eta transferentzia horiek behar bezala baimenduak izan gabe.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Bateraturiko egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Lizarrako Udalaren egoera ekonomikoa eta ondarezkoa.

Hala ere, komeni da adieraztea ondasunen inbentarioa 1995eko abenduaren 31ko datarekin egin zela, eta balioespen-irizpide gisa nagusiki katastroko balioa erabili zela, eta 1996ko aurrekontuko inbertsioak zuzenean egotzi zaizkiola lbilgetuari, zenbatekoen eta kontzeptuen araberako inolako bereizketarik egin gabe.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Lizarrako Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, nahiz eta langileria-arloan, eta, bereziki, sartzeko araubideari eta ordainsariei dagokienean, indarreko araudia urratu izan den.

IV.4. KONTUEN GANBARAREN AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 1993. urteari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla esan daiteke, langileria-arloko legediaren aplikazioari dagokionean izan ezik.

IV.5. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Lizarrako Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa, 1996ko abenduaren 31ko datarekin, garbia da, diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako eta aurrezki garbia positiboak direlako; horien zenbatekoak 129 milioi pezetakoa eta 79 milioi pezetakoa dira, hurrenez hurren.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, Lizarrako Udalak bere aurrekontuak administrazio-ikuspegitik modu egokian kudeatzen dituela esan genezake, baina honako hauek beharrezko ditu:

- Langileria-arloko araudia hertsiki betetzea.
- Kontuhartzaitzak erosketa-eskakizun guztiak kontrolatzea.
- Udalaren kudeaketarako ezarritako ingurune informatikoa hobetzea.
- Kirol, Gizarte Ongizateko eta Almodí Kultur Zentroko Patronatuen egungo egoera aztertzea eta argitzea, horiei araudian eta estatutuetan aurreikusitako autonomia emateko edo horiek desegiteko erabakia hartzeko, horien jardura udal zerbitzuek berek bereganatuz.

Ildo horretakoak dira txosten honetan jasotako gomendioak, eta gaur egun Udala horietako asko ezartzen ari da.

V. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

Jarraian, kontabilitateko egoera-orri bateratuak aurkeztuko ditugu, eta, horrekin batera, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontu-betetzea.

V.1. AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA. 1996KO EKITALDIA

(milioitan)

| Dirusarrera-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Alda- ketak | Behin betiko aurreikuspena | Likidaturiko eskubideak | Bildutako diru- kopuru likidoa | Kobratzeko dagoena | Betetze- egoera |
|---------------------------------------|----------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------------|-----------------------------------|-----------------------|--------------------|
| 1-Zuzeneko zergak | 206 | 0 | 206 | 242 | 222 | 20 | 36 |
| 2-Zeharkako zergak | 85 | 0 | 85 | 109 | 99 | 10 | 24 |
| 3-Tasak eta bestelako dirusarrerak | 99 | 6 | 105 | 108 | 90 | 18 | 3 |
| 4-Ohiko transferentziak | 501 | 31 | 532 | 527 | 488 | 39 | 5 |
| 5-Ondare dirusarrerak | 8 | 1 | 9 | 16 | 13 | 3 | 7 |
| 6-Inbertsio errealak besterenganatzea | 98 | 0 | 98 | 0 | 20 | 0 | -78 |
| 7-Kapital transferentziak | 78 | 395 | 473 | 196 | 166 | 30 | -277 |
| 8-Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 172 | 172 | 4 | 4 | 0 | -168 |
| 9-Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | - | 0 |
| Dirusarrerak, guztira | 1.075 | 605 | 1.680 | 1.222 | 1.102 | 120 | -458 |

(milioitan)

| Gastu-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Alda- ketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko obligazioak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko dagoena | Betetze- egoera |
|--|----------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------------|------------------------|------------------------|--------------------|
| 1-Langileria gastuak | 496 | 31 | 527 | 485 | 480 | 5 | 42 |
| 2-Ohiko ondasunei eta zerbitzuei dagozkien gast. | 295 | 41 | 336 | 317 | 282 | 35 | 19 |
| 3-Finantza gastuak | 46 | 5 | 41 | 39 | 39 | 0 | 2 |
| 4-Ohiko transferentziak | 55 | 8 | 63 | 49 | 37 | 12 | 14 |
| 6-Inbertsio errealak | 154 | 529 | 683 | 217 | 174 | 43 | 466 |
| 7-Kapital transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8-Finantza-aktiboen aldaketa | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 9-Finantza-pasiboen aldaketa | 28 | 0 | 28 | 28 | 28 | 0 | 0 |
| Gastuak, guztira | 1.075 | 604 | 1.679 | 1.136 | 1.041 | 95 | 543 |

V.2. 1996-XII-31KO EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

| Izendapena | Zenbatekoa (milakotan) | |
|--|------------------------|------------------|
| | 96.12.31 | 95.12.31 |
| IBILGETUA | 4.470.231 | 4.261.261 |
| IBILGETU MATERIALA | 3.880.428 | 3.756.746 |
| Lurrak eta ondasun naturalak | 114.947 | 114.947 |
| Eraikinak | 2.886.148 | 2.897.008 |
| Makineria, instalazioak eta tresneria | 61.670 | 59.881 |
| Garraio-elementuak | 5.927 | 2.146 |
| Altzariak | 44.282 | 41.102 |
| Informazio-prozesuetarako ekipamenduak | 27.657 | 23.932 |
| Bestelako ibilgetu materiala | 619.427 | 617.730 |
| Instalazio konplexu espezializatuak | 120.370 | 0 |
| IBILGETU INMATERIALA | 3.690 | 2.300 |
| Bestelako ibilgetu inmateriala | 3.690 | 2.300 |
| INBER. AZPIEGIT. ETA ERABILERA OROK. ONDASUNETAN | 579.417 | 497.128 |
| Lurrak eta ondasun naturalak | 562.722 | 376.758 |
| Azpiegiturak eta erabilera orokorreko ondasunak | 16.495 | 0 |
| Herri-lur eta herri-ondasun naturalak | 0 | 120.370 |
| Ondare historikoa | 200 | 0 |
| FINANTZA-IBILGETUA | 6.696 | 5.087 |
| Kotizazio ofizialik gabeko akzioak | 776 | 776 |
| Epe luzerako fidantzak | 5.920 | 4.311 |
| ZORDUNAK | 239.429 | 275.229 |
| Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Indarreko aurrekontua | 120.512 | 190.974 |
| Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Aurrekontu itxiak | 116.931 | 77.866 |
| Ogasun Publikoa. Jasandako B.E.Z. | 29 | 0 |
| Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak formalizatzea | 0 | 6.167 |
| B.E.Z. agatiko zordunak | 1.957 | 222 |
| FINANTZA-KONTUAK | 238.744 | 164.176 |
| Errenta finkoko bestelako baloreak | 100.000 | 78.000 |
| Udalbatzako Kutxa | -4.015 | 280 |
| Bankuak eta finantza-kontuak | 135.582 | 80.538 |
| Bankuak eta finantza-erakunde operatiboak | 7.177 | 5.358 |
| APLIKATZEKE DAUDEN EMAITZAK | 0 | 58.945 |
| Ekitaldiko emaitzak | 0 | 58.945 |
| Aktiboa, guztira | 4.948.404 | 4.759.611 |
| AKTIBOKO ORDENA-KONTUAK | | |
| Jasotako abalak | 90.143 | 98.179 |
| Diruzaintza: jasotako baloreak | 45.358 | 76.814 |
| Aktiboko ordena-kontuak, guztira | 135.501 | 174.993 |

PASIBOA

| Izendapena | Zenbatekoa (milakotan) | |
|---|------------------------|------------------|
| | 96.12.31 | 95.12.31 |
| ONDAREA ETA ERRESERBAK | 3.360.067 | 3.347.434 |
| Ondarea | 3.360.067 | 3.347.434 |
| KAPITAL-DIRULAGUNTZAK | 832.644 | 806.447 |
| Estatuko Sektoretik jasotako kapital-dirulaguntzak | 163.641 | 163.641 |
| Autonomi Erkidegoetatik | 668.703 | 642.506 |
| Enpresa Pribatuetatik | 300 | 300 |
| EPE LUZERAKO ZORRAK | 425.091 | 453.538 |
| Epe luzerako maileguak | 82.034 | 84.126 |
| Epe luzerako maileguak, barne-arlokoak | 343.057 | 369.412 |
| EPE LABURRERAKO ZORRAK | 134.328 | 151.378 |
| Hartzekodunak, aitorturiko obligazioak. Indarreko aurrekontua | 251 | 51.742 |
| Hartzekodunak, aitorturiko obligazioak. Aurrekontu itxiak | 187 | 1.420 |
| Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrekontua | 94.968 | 39.619 |
| Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Aurrekontu itxiak | 2.146 | 1.507 |
| Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak | 23 | 442 |
| Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodun | 9.851 | 10.101 |
| Gizarte Segurantza, hartzekodun | 45 | 623 |
| Ogasun Publikoa, erasandako B.E.Z. | 0 | -42 |
| Ogasun Publikoa, B.E.Z. agatik hartzekodun | 10.352 | 28.386 |
| Jasotako gordailuak | 185 | 185 |
| Funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko entitateak | 235 | 399 |
| Aurrekontuz kanpoko ordainketen formalizazioa | 2.405 | 6.237 |
| B.E.Z. agatik hartzekodunak | 5.922 | 3.490 |
| Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak | 7.737 | 7.269 |
| Epe laburrerako fidantzak | 21 | 0 |
| APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK | -2.092 | 776 |
| Aplikatzeko dauden dirusarrerak | -2.092 | 776 |
| EKITALDIKO EMAITZA | 198.316 | 0 |
| Ekitaldiko emaitza | 198.316 | 0 |
| PASIBOKO BESTE HAINBAT KONTU | 50 | 38 |
| Formalizazioa | 50 | 38 |
| Pasiboa, guztira | 4.948.404 | 4.759.611 |
| PASIBOKO ORDENA-KONTUAK | | |
| Baloreen formalizazioa | 85 | 0 |
| Abalemaileak | 90.058 | 98.179 |
| Gordekintetan gauzaturiko eskubideak | 45.358 | 76.814 |
| Pasiboko ordena-kontuak, guztira | 135.501 | 174.993 |

V.3. EMAITZA BATERATUEN KONTUA (MILIOITAN), 1996

| ZORRA | | | HARTZEKOA | | |
|--|--------------|------------|---|--------------|------------|
| Deskribapena | Zenbat. | | Deskribapena | Zenbat. | |
| | 1996 | 1995 | | 1996 | 1995 |
| Langileria-gastuak | 483 | 419 | Salmentak | 49 | 44 |
| Finantza gastuak | 39 | 56 | Jabetzaren eta enpresaren errenta | 65 | 61 |
| Zergak | 0 | 0 | Produk. eta inportazioari loturiko zergak | 273 | 256 |
| Lanak, hornidurak eta kanpo-zerbitzuak | 316 | 276 | Errentaren gaineko ohiko zergak | 57 | 54 |
| Gizarte-prestazioak | 4 | 3 | Ohiko transferentziak | 530 | 489 |
| Ohiko transferentziak | 52 | 41 | Kapitalaren gaineko zergak | 34 | 41 |
| Ustiapeneko mozkinak (saldo hartzek.) | 280 | 166 | Bestelako dirusarrerak | 166 | 16 |
| Guztira | 1.174 | 961 | Guztira | 1.174 | 961 |

| ZORRA | | | HARTZEKOA | | |
|---|------------|------------|---|------------|------------|
| Deskribapena | Zenbat. | | Deskribapena | Zenbat. | |
| | 1996 | 1995 | | 1996 | 1995 |
| Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna) | 0 | 0 | Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzek.) | 280 | 164 |
| Eskub. eta oblig. ald., itxitako aurrek. (s.z.) | 21 | 7 | Eskub. eta oblig. ald., itxitako aurrek. (s.h.) | 0 | 0 |
| Mozkin garbia, guztira (saldo hartzek.) | 259 | 157 | Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | 0 | 0 |
| Guztira | 280 | 164 | Guztira | 280 | 164 |

V.4. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA, 1996

| Kodea | Kontuak | Zenbatekoak (milioitan) |
|-------|--|-------------------------|
| 1 | (+) ZORDUNAK, EKITALDI-AMAIERAN KOBRAZKEKE | 10 |
| | Dirusarrera-aurrekontutik. Indarreko aurrekontua | 12 |
| | Dirusarrera-aurrekontutik. Itxitako aurrekontuak | 11 |
| | Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetatik | |
| | Ken kobrantza zalantzagarriko saldoak | -13 |
| | Ken aplikatzeke dauden egindako dirusarrerak | |
| 2 | (-) HARTZEKODUNAK, EKITALDI-AMAIERAN ORDAINTZEKE | 13 |
| | Gastu-aurrekontutik. Indarreko aurrekontua | 9 |
| | Gastu-aurrekontutik. Itxitako aurrekontuak | |
| | Dirusarrera-aurrekontutik | |
| | Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetatik | 3 |
| 3 | (+) DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK EKITALDI-AMAIERAN | 23 |
| 4 | ATXIK. FINANTZ. DUTEN GASTUEI ATXIK. DIRUZAINZAKO GERAKINA | 7 |
| 5 | DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO (1-2+3-4) | 13 |
| | DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA (1-2+3)/(4+5) | 20 |

V.5. LIZARRAKO UDALA. 1996KO AURREKONTU EKONOMIKOAREN BETETZE-EGOERA

(milioitan)

| Dirusarrera-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Alda- ketak | Behin betiko aurreikuspena | Likidaturiko eskubideak | Bildutako diru- kopuru likidoa | Kobratzeko dagoena | Betetze- egoera |
|---------------------------------------|----------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------------|-----------------------------------|-----------------------|--------------------|
| 1-Zuzeneko zergak | 206 | 0 | 206 | 242 | 222 | 20 | 36 |
| 2-Zeharkako zergak | 85 | 0 | 85 | 109 | 99 | 10 | 24 |
| 3-Tasak eta bestelako dirusarrerak | 86 | 6 | 91 | 92 | 74 | 18 | 1 |
| 4-Ohiko transferentziak | 499 | 31 | 530 | 523 | 485 | 39 | -7 |
| 5-Ondare dirusarrerak | 8 | 1 | 9 | 16 | 13 | 3 | 7 |
| 6-Inbertsio errealak besterenganatzea | 98 | 0 | 98 | 20 | 20 | 0 | -78 |
| 7-Kapital transferentziak | 78 | 395 | 474 | 196 | 166 | 30 | -278 |
| 8-Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 172 | 172 | 4 | 4 | 0 | -168 |
| 9-Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Dirusarrerak, guztira | 1.060 | 605 | 1.665 | 1.202 | 1.082 | 120 | -463 |

(milioitan)

| Gastu-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Alda- ketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko obligazioak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko dagoena | Betetze- egoera |
|--|----------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------------|------------------------|------------------------|--------------------|
| 1-Langileria-gastuak | 475 | 31 | 506 | 470 | 465 | 5 | 36 |
| 2-Ohiko ondasunei eta zerbitzuei dagozkien gast. | 288 | 41 | 329 | 312 | 277 | 35 | 17 |
| 3-Finantza gastuak | 46 | -5 | 41 | 39 | 39 | 0 | 2 |
| 4-Ohiko transferentziak | 68 | 8 | 76 | 52 | 40 | 12 | 24 |
| 6-Inbertsio errealak | 154 | 529 | 683 | 217 | 174 | 43 | 466 |
| 7-Kapital transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8-Finantza-aktiboen aldaketa | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| 9-Finantza-pasiboen aldaketa | 28 | 0 | 28 | 28 | 28 | 0 | 0 |
| Gastuak, guztira | 1.060 | 604 | 1.664 | 1.119 | 1.024 | 95 | 545 |

V.6. LIZARRAKO UDALA. 1996KO AURREKONTU FUNTZIONALAREN BETETZE-EGOERA

(milioitan)

| Gastu-funtzioak | Hasierako aurreikuspena | Alda- ketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko obligazioak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko dagoena | Betetze- egoera |
|---|----------------------------|----------------|-------------------------------|----------------------------|------------------------|------------------------|--------------------|
| Zerbitzu orokorrak | 97 | 18 | 115 | 109 | 106 | 3 | 7 |
| Babes zibila eta hiri-segurtasuna | 89 | 3 | 92 | 86 | 82 | 4 | 6 |
| Gizarte-segurantzak, -babesa eta -sustapena | 295 | 29 | 324 | 289 | 277 | 12 | 35 |
| Gizarte-izaerako ondasun publikoak produzitzea | 418 | 503 | 921 | 485 | 411 | 74 | 436 |
| Ekonomia-izaerako ondasun publikoak produzitzea | 60 | 56 | 115 | 58 | 56 | 1 | 58 |
| Izaera orokorreko eraentza ekonomikoa | 25 | 1 | 25 | 24 | 22 | 1 | 2 |
| Produktzio-sektoreen eraentza ekonomikoa | 2 | 0 | 2 | 2 | 2 | 0 | 0 |
| Zor publikoa | 75 | -5 | 70 | 68 | 68 | 0 | 2 |
| Gastuak, guztira | 1.060 | 604 | 1.664 | 1.119 | 1.024 | 95 | 545 |

V.7. MUSIKA PATRONATUA. 1996KO AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA

(milioitan)

| Dirusarrera-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspena | Likidaturiko eskubideak | Bildutako diru-kopuru likidoa | Kobratzeko dagoena | Betetze-egoera |
|------------------------------------|-------------------------|-----------|----------------------------|-------------------------|-------------------------------|--------------------|----------------|
| 3-Tasak eta bestelako dirusarrerak | 13 | 0 | 13 | 16 | 16 | 0 | 3 |
| 4-Ohiko transferentziak | 19 | 0 | 19 | 9 | 9 | 0 | -10 |
| 5-Ondare dirusarrerak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Dirusarrerak, guztira | 32 | 0 | 32 | 25 | 25 | 0 | -7 |

(milioitan)

| Gastu-kontzeptuak | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko obligazioak | Ordainketa likidoak | Ordaintzeko dagoena | Betetze-egoera |
|--|-------------------------|-----------|----------------------------|-------------------------|---------------------|---------------------|----------------|
| 1-Langileria-gastuak | 21 | 0 | 21 | 15 | 15 | 0 | 6 |
| 2-Ohiko ondasunei eta zerbitzuei dagozkien gast. | 7 | 0 | 7 | 5 | 5 | 0 | 2 |
| 4-Ohiko transferentziak | 3 | 0 | 3 | 3 | 3 | 0 | 0 |
| 6-Inbertsio errealak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Gastuak, guztira | 31 | 0 | 31 | 23 | 23 | 0 | 8 |

VI. ANALISIA, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian, Udaleko antolamendua eta barne-kontrolerako sistema hobetzeko eta, horrekin, kudeaketa hobetzea lortzeko egokitzat jotzen diren ondorio eta gomendio orokorren berri ematen dugu.

VI.1. AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Iritziari dagokionean IV. idazatian adierazitako gogoan edukiz, aurrekontu-betetzearen ondoriozko alderdi hauek azpimarratuko ditugu jarraian:

1996ko ekitaldirako aurrekontua 1995eko abenduaren 29an onetsi zen. Horren likidazioa Osoko Bilkurak 1997ko apirilaren 21ean onetsi zuen, araudian ezarritako izapideak egin ondoren.

Ekitaldia amaitzean, kreditu-aldaketa hauek kontabilizatu dira: benetan dirusarrera altuagoak izatearen ondorioz kredituak gaitzeagatik, 38.700.664 pezetakoak, eta kontusailen arteko kreditu-transferentziengatik, 7.510.788 pezetakoak. Aurrenekoak ekitaldia amaitu ondoren onetsiak izan dira, eta, bigarrenari dagokienez, ez dira behar bezala onetsiak izan, Exekuzio Oinarriek adierazten duten bezala, Alkatetzaren erabaki baten bitartez.

Betetze-maila, dirusarreretan, ehuneko 73koa izan da, eta, gastuetan, ehuneko 68koa. Aipagarria da inbertsio errealean besterentzei eta kapital-

transferentziei buruzko dirusarrera-kontzeptuen eta gastu-aurrekontuko inbertsioen betetze urria, ehuneko 20, 41 eta 32koa baita, hurrenez hurren. Dena den, inbertsio-gastuari dagokionez, esan beharra dago 1997ko Aurrekontuan aldaketak sartu direla, guztira 308 milioiko zenbatekoa dutenak, 1996an hasitako inbertsioen ondoriozkoak (ikus VI.6.4. epigrafea).

Betetze-egoera bateratuak 86 milioiko superabita agertzen du. Horixe da, hain zuzen, dirusarrera gisa likidaturiko 1.222 milioiko eskubideen eta gastu gisa aitorturiko 1.136 milioiko obligazioen arteko aldea. Kontuan hartzen baldin baditugu finantzaketako desbiderapenak eta diruzaintzako gerakin likidoaren kargura finantzaturiko gastuak, 144 milioiko aurrekontu-emaizta doitu positiboa lortzen da.

Gastu-kontzeptuei dagokienez, garrantzitsuen langileriaarena da, 485 milioikoa izanik, aitorturiko obligazioen ehuneko 43 osatzen baitu; atzetik, ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketei dagokiena eta inbertsio errealena datoz, ehuneko 28 eta 19, hurrenez hurren, osatzen baitute.

Dirusarrera-kontzeptuen ikuspegitik, ohiko transferentziei dagokienak, 527 milioikoa izanik, likidaturiko eskubideen ehuneko 43 osatzen du; atzetik, zuzeneko zergei eta kapital-transferentziei dagokienak datoz, ehuneko 20 eta 16, hurrenez hurren, osatzen baitute.

Aurrekontu-likidazioa kode funtzional eta ekonomikoen arabera burutzen da. Udalaren jardue-

ra-bolumena zein neurritara iritsi den ikusirik, *egitza jarduketak udal jardueraren efikazia eta ekonomiarekin alderatuz balioestea ahalbidetuko duen teknikaren bat erabiliz aurrekontuak egiten eta likidatzen hastea gomendatzen dugu; horretarako, beharrezkoa izango da helburu eta adierazleak ezartzea programa funtzionaletako bakoitzarako.*

Bestalde, kreditu-aldaketa guztiak gastuak egin aurretik onestea.

VI.2. GERTAKARIAK

Lan hau egiteko garaian, Udala 31 errekurtsu kontentzioso-administratibotan sartua zegoen, demandatu gisa, entitateak eskaintako informazioaren arabera. Errekurtsu horiek, gaiaren arabera, honela sailka daitezke:

| | Kopurua |
|------------|---------|
| Ogasuna | 9 |
| Hirigintza | 9 |
| Langileria | 6 |
| Polizia | 5 |
| Bideak | 2 |

Ogasun-arloko errekurtsu gehienak lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioari buruzkoak dira.

Hirigintza-arloan, auziak Hirigintza Antolamenduari buruzko Plan Orokorren onespenera buruzkoak dira, besteak beste.

Langileriari buruzkoetan, hauexek dira azpimarragarriak:

Gizarte Segurantzak hiru langileren araubide orokorreko kotizazioak erreklamatu izana. Langile horiek behinola autonomo gisa kotizatu zuten.

Aldi baterako kontrataturiko hainbat langile lan kontratupeko langile finko bihurtzea dela-eta Nafarroako Gobernuak aurkezturiko errekurtsua.

Gaur egun, aurkezturiko errekurtsuak ebazteak ekar ditzakeen ondorio ekonomikoak zenbatestea ez da posible.

Halaber, Udalak bi demanda aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuaren aurka: bata, udalerriko saihebidetaren proiektuarengatik, eta, bestea, babes ofizialeko etxebizitzetara toki-zergetan emandako onurengatik konpentsazioa eskatzeko (Udalak erreklamatu duen zenbatekoa 45 milioiokoa da).

VI.3. 1996KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKOA

Jarraian, egoera ekonomikoa balioestea ahalbidetuko diguten hainbat adierazle aurkeztuko ditugu.

| Lizarrako Udala | | |
|----------------------------------|-------------------|------------------|
| | 1995eko ekitaldia | 1996ko ekitaldia |
| Ekitaldiko dirusarrerak | 929.724.456 | 982.130.103 |
| Gastuak, I, II eta IV kontzep. | 719.983.350 | 834.460.588 |
| Aurrezpen gordina | 209.741.106 | 147.669.515 |
| Finantza-karga (*) | 79.343.804 | 67.697.634 |
| Aurrezpen garbia | 130.397.302 | 79.971.881 |
| Zorpetze-maila | 8,53 % | 6,89 % |
| Zorpetze-muga | 22,56 % | 15,04 % |
| Zuzenbidezko biztanle-kopurua | 12.815 | 12.552 |
| Ekitaldiko gastuak/biztanle | 62.374 | 71.874 |
| Zerga bidezko dirusar./biztanle | 35.670 | 35.242 |
| Ekitaldiko dirusarrerak/biztanle | 72.550 | 78.245 |

(*) 1995eko ekitaldian ez dira kontuan hartu Kiroldegirako sei hilabetezko maileguaren interesak eta amortizazioa, 16.069.023 eta 300.000.000 pezetaok, hurrenez hurren.

| Zor biziaren bilakaera | | |
|------------------------|----------------|-------------|
| Ekitaldia | XII-31ko zorra | Gehikuntza |
| 1995 | 453.050.412 | |
| 1996 | 424.603.294 | -28.447.118 |

Eskuraturiko datuak konparatuz, honako ondorio hauek ateratu daitezke:

- 1996ko ekitaldiko aurrezpen gordin eta garbiaren magnitudeak positiboak dira, eta horien zenbatekoak 148 eta 80 milioi dira, hurrenez hurren. Hala ere, 1995eko ekitaldiarekin alderatuz, biak murriztu egin dira.

- 1996ko funtzionamendu-gastuen gehikuntza ehuneko 16koa (114 milioi pezeta) izan da, eta, epe bererako, ekitaldiko dirusarrek ehuneko 6 (52 milioi pezeta) egin dute gorantz.

- Epe luzerako zorpetze-maila baxua. Gainera, horren interes-kargak Mibor du erreferentzia.

- Biztanle bakoitzeko ekitaldiko dirusarrek 5.695 pezeta egin dute gorantz, ohiko transferentzien ondoriozko dirusarrek gehikuntza (ehuneko 15ekoa) dela-eta. Bestalde, biztanle bakoitzeko zerga bidezko dirusarrek ia-ia ez dute

aldaketarik izan, eta Nafarroako toki-entitateetako batezbestekoa baino apur bat altuagoak dira.

VI.4. KONTUEN GANBARAREN AURREKO TXOSTENeko GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, aurreko txostenean eginiko gomendioak modu onargarrian bete direla esan daiteke. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da zerga-kudeaketan eta Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazio orokorrean ageriko hobekuntzak egon direla.

Hobetzeke dauden edo hobetu daitezkeen alderdiei dagokienez, gure ustez lehentasunak honakoak dira:

- Kreditu-aldaketak gastuak egin aurretik onestea.
- Aurrekontua Betetzeko Oinarrietan ezarritako prozedura jarraitzea gastuak baimentzeko.
- Langileriaren Estatutuan aurreikusitako sartzeko sistema eta ordainketa-araubidea hertsiki aplikatzea, eta, ondorioz, hauxe ekiditea: araudian aurreikusita ez dauden sariak ordaintzea eta aldi baterako postuak legez ezarritako baldintzak bete gabe finko bihurtzea.

VI.5. BESTELAKO IRUZKIN OROKORRAK

- Lizarrako Udaletxean instalaturiko sistema informatikoak arazo larriak sortarazi dizkie instalaturiko sarearen erabiltzaileei, eta horren ondorioz, ziurgabetasuna nagusitu da instalaturiko paketeak erabiltzeari dagokionean.

Honako hau gomendatzen dugu: entitateak egin dezala azterketa bat jarduera normalerako erabiltzen diren aplikazioen mantenimendua bermatzeari buruz.

- Lizarrako Udalak 1994tik dauka ezarritako Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra.
- Entitateak aurkeztu egin ditu gastu eta diru-sarreraren aurrekontu bateratuaren betetzea eta Musika Patronatuarekin bateraturiko egoerabalantzea.
- Aurrekontua betetzeko oinarriak baditu eta dirusarrera fiskalak kudeatu eta biltzeko ordenantzak onetsi ditu.
- Nafarroako Foru Ogasunei buruzko Foru Legeko lehen xedapen iragankorrari jarraituz, tasa eta prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko beharrezkoak diren azterlanak burutu ditu 1997ko ekitaldirako.

- Diruzaintzan kontaktarik ez da egin, baina diruzaintzako kontuen kontabilitate-saldoak etengabe adosten dira banku-entitateetatik jasotako laburpenekin.

Kutxa-kontaktak eta dagozkien banku-ados-teak hilabetero egin daitezela gomendatzen dugu.

- Udalak bere bitartekoekin burutu zuen 1995eko abenduaren 31ko ondasun-inbentarioa. 1996ko ekitaldiko inbertsioak ez zaizkio horri gehitu; hori dela-eta, eginiko inbentarioa gaurkotzea eta inbentario-ondasunak halakotzat hartu ahal izateko beren izaeraren eta zenbatekoaren araberrako irizpide bat finkatzea gomendatzen dugu.

VI.6. INTERESA DUTEN HAINBAT ARLO

VI.6.1. Langileria

Langileria-arloaren xehekapena, 1996ko ekitaldikoa, honako hau da:

| | (milakotan) |
|-----------------------------|-------------------------|
| | Aitorturiko obligazioak |
| Goi-karguak | 8.454 |
| Funtzionarioak | 109.048 |
| Lan kontratupeko langileria | 167.232 |
| Gizarte kostu eta gastuak | 185.545 |
| Total | 470.279 |

Kontzeptu honek 1996ko ekitaldiko gastu osoaren ehuneko 42 hartzen du, eta ehuneko 15eko gehikuntza agertzen du 1995eko ekitaldiarekiko. Enplegu Institutu Nazionalarekin (I.N.E.M.) eta Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hainbat lan-kidetzeta-hitzarmenen babespeko langileak aldi baterako kontratatzearen ondoriozkoa da gehikuntza hori.

1996ko abenduaren 31n Udalaren zerbitzuan diharduen langileria hauxe da:

| | Guztira | Metatua |
|--------------------------|---------|---------|
| Funtzionarioak | 65 | |
| Lan kontratupeko finkoak | 6 | 71 |
| Aldi baterakoak | 55 | |
| Hutsak | 4 | 130 |

Burururiko lanaren laburpen gisa, esan daiteke likidazioak 1996ko ekitaldiko langileria-gastu guztiak jasotzen dituela.

1996ko ekitaldirako plantila organikoa 1996ko urriaren 3ko Osoko Bilkurak onetsi zuen.

Entitateak langileekin sinaturiko hitzarmen-akordioak bi osagarri ezartzen ditu, bata urteroko 24.000 pezetakoa, eskura egoteagatik, eta urteroko 12.000 pezetako beste bat, bertan egoteagatik. 1996ko ekitaldian zehar, ordainsari hauei dagoen zenbatekoa 1,6 eta 0,7 milioikoa, hurrenez hurren, izan da. Sei hilabetero ordaindu zaizkie, 68 langileri, batezbeste. Osagarri horiek indarreko Langileria Estatutuak xedatutakoaren aurkakoa dira.

Zelaiko lanaren amaierako fasean egiaztatu ahal izan da aurreko osagarriak lanpostuaren ordainsari bihurtu dituztela 1998rako, gaur egungo araudiari jarraituz.

Gizarte Segurantzari kotizatzearen ondorioetarako, Udalak, bere jarduerak burutzeko, zazpi patronal-zenbaki dauzka.

1997ko azaroaren 25eko Osoko Bilkurak 1997rako plantila organikoa onetsi zuen. Bertan, kasuan-kasuko oposizio-lehiaketa egin gabeko lan kontratueko langile finkotzat jotzen dira bi langile –Udal Idazkaritzaren txostena negatiboa izanik–, 1996ko abenduaren 31n 5 urte eta 11 hilabeteko eta 3 urte eta 11 hilabeteko antzinatasuna dutenak. Jarduketa hori langileria-arloko gaur egungo araudiaren aurkakoa da.

Hauxe gomendatzen dugu:

Langileria Estatutuan aurreikusitako ordainsari-araubidea hertsiki aplikatzea, legeak aurreikusi gabeko sariak ordaintzea ekidinez eta gaur egun dagoen egoera araudiari egokituz.

Ekitaldi bakoitzeko plantila organikoa eta epe horretarako aurrekontuak batera onestea.

Patronal-zenbakiak murriztea, ezinbestekoak direnak besterik ez uzteraino.

Aldi baterako kontratuen iraupena kontrolatzea eta langileria finkoa kontratatzeke oposizio-lehiaketetarako beharrezkoak diren deialdiak egitea, horri buruz indarrean dagoen araudia betez. Araudi hori Administrazio Publiko guztiek bete beharrezkoa da.

VI.6.2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea

Zerbitzuetarako erosketak eta gastuak 312 milioikoak dira, eta kontzeptu honetako guztizko gastuaren ehuneko 28 hartzen dute. Aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 16 egin dute gora.

Kontzeptu honetako laburpen-koadroa honako hau da:

| (milakotan) | |
|---------------------------------------|-------------------------|
| Kontzeptua | Aitorturiko obligazioak |
| Errentamenduak | 4.776 |
| Konponketak eta mantenimendua | 43.319 |
| Materiala, hornidurak eta bestelakoak | 263.181 |
| Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak | 1.160 |
| Guztira | 312.436 |

Kontusailik garrantzitsuenak honako hauei dagozkienak dira:

| (milioitan) | |
|-----------------------------|------------|
| Kontzeptua | Zenbatekoa |
| Bideak garbitzea | 42 |
| Argi publikoak | 20 |
| Tailer-eskolarako materiala | 26 |
| Askotariko jarduerak | 57 |
| Askotariko jaiak | 24 |

Eginiko ikuskapenaren bitartez, honako hau aurkitu dugu:

- 1996ko ekitaldian zehar arlo honetan kontabilizatu dira hainbat kontzeptu izaeraren arabera ohiko transferentziatzat jo beharko lirakeenak (kultur taldeekin sinaturiko hitzarmenen ondoriozko dirulaguntzak, auzoetako jaiak antolatzeke dirulaguntzak...).

- Kontzeptu honetako gastu-sailak ez dira zuzen taxutu, kontzeptu ekonomiko eta funtzionalen arteko nahasketa dagoelako, erakunde autonomoei dagozkien sailetan, nagusiki.

- Zaindariaren jaiak direla-eta eginiko gastuetako batzuetan, horien euskarri den dokumentazioak ez ditu beharrezkoak diren gutxieneke betebeharrak betetzen.

- Jasotako fakturak aztertuz, zenbateke txikia dutenetan aurkitu da formako betekizunak ez direla betetzen. Adibidez, Identifikazio Fiskaleke Zenbakirik (IFZ), datarik edo faktura-zenbakirik ez agertzea.

Kontratazio-analisan honako espediente hauek aztertu dira: udal hilerriaren mantenimendurako zerbitzua, bide-garbiketarako zerbitzua, udaletxearen garbiketarako zerbitzua eta udal aseguruaren kontratazioa.

- Bide-garbiketarako zerbitzua 1992an esleitu zen, zazpi urteke iraupenarekin, eta zerbitzu-ema-

tearen amaiera-data 1999ko otsailaren 1a da. Esleipen hori modu zuzenean egin zen, publizitaterik, lehiaketarik eta zerbitzu-ematea arautzeko baldintza-orririk gabe. 1993tik aurrera hornitzaile berari esleitzen zaio, zuzenean, jaietako ezohiko garbiketa. Bestalde, 1996ko ekainaren 6ko osoko bilkuran aho batez onetsi zen zerbitzua pertsona batekin handitzea.

- Gainontzeko espedienteetan eginiko ikuska-penetik ondorioztatzen denez, Udalak funtsean errespetatu egin du kontratazioari buruzko foru-araudia.

Lizarrako Eskualde Ospitalerako garraio-zerbitzuei eta eskola-garraioari dagokienean, oraindik ere baldintza-orrien edo zerbitzu horiek ematen ari den enpresarekin sinaturiko kontratuen bidez arautuak izan gabe dira.

Honako hau gomendatzen dugu:

Erosketak egiten diren zentro bakoitzari idatziz jakinaraztea gastuak egiteko araudia, aurrekontua betetzeko oinarriek deskribatzen dutena, ezarria izan dadin.

Gastu-sailletako aurrekontu-egitura birdefinitzea, kontzeptu honetako gastuei dagozkien egitura funtzional eta ekonomikoa duten sailak eratuz.

Gastuaren euskarri den dokumentazioa eduki bitartean inolako ordainketarik ez egitea.

B.E.Z.ari buruzko araudia betetzea, fakturen zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ galdatuz.

Lizarrako Eskualde Ospitalerako garraioaren eta eskola-garraioaren zerbitzu-ematea birkontratatze araudia ematea, Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritakoari jarraituz.

VI.6.3. Emandako ohiko transferentziak

Kontzeptu honek 51.746.819 pezetako balioa duten aitorturiko obligazioak agertzen ditu. Horrek hartzen du guztira eginiko gastuaren ehuneko 4,6, aurreko ekitaldiarekiko gehikuntza ehuneko 27koa izanik.

Gehikuntza horren arrazoi nagusia hau da: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarako hobarien ondorioz, dirulaguntzak eman zaizkie babes ofizialeko etxebizitzetara, 8,5 milioiko zenbatekoa dutenak.

VI.6.4. Inbertsioak

Gastu-kontzeptu honen hasierako aurrekontua 154 milioikoa da, eta 529 milioiko zenbatekoa duten aurrekontu-aldaketak dauzka; beraz, behin betiko aurrekontua 683 milioikoa da. Horietatik,

217 milioiko betetzea egin da, hau da, kontzeptuko aurrekontuaren ehuneko 32ko betetzea, eta betetako guztiaren ehuneko 19.

Ondoko koadroan 1996ko ekitaldiko inbertsiorik garrantzitsuenak agertzen dira; baita ere, 1997ko aurrekontuari gehiturikoak, Baimentze-Hitzartze fasean daudenak:

| (milioitan) | | |
|-------------------------------------|-------------------|-------------------------------|
| Kontzeptua | Zenbatekoa, 96 | 97ko aurre- kontua, aldak. |
| Lursailak erostea | 45 | - |
| “B” sektorea urbanizatzea | 97 | 223 |
| Remontinal Ikastetxea, urbanizatzea | 10 | 1 |
| Kaleak zolatzea | 17 | 49 |
| Parke naturala | 16 | - |
| Gazteria Etxea | 7 | - |
| Los Llanos-eko Plan Berezia idaztea | 5,5 | 1 |
| Bestelakoak | 9,5 | 33 |
| Guztira | 217 | 308 |

Zenbateko txikiko fakturak inbertsio gisa kontabilizatuak izan direla ikusi ahal izan dugu; hori dela-eta, gastu edo inbertsioztat hartu ahal izateko, irizpide objektibo edo gutxieneko zenbateko bat ezar dadila gomendatzen dugu.

Kontzeptu honetan aitorturiko obligazioen ehuneko 63 hartzen duten obra-espedituek aztertu dira kontratazioari buruzko analisian, eta honako hauek dira:

- “B” sektorea urbanizatzea.
- Kaleak zolatzea.
- Kultur Parkea.
- Gazteria Etxearen zimentazioa.

Jarraian, azterturiko espediente bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu:

“B” sektorea urbanizatzea.

Udaleko osoko bilkurak, martxoaren 7an, “B” sektorearen urbanizazioa kontratatze araudia administrazio-klausulen orria onetsi zuen, zenbatekoa 381 milioikoa eta prozedura enkante bidezkoa izanik. Obra 286 milioitan esleitu zen, 1996ko maiatzaren 26ko osoko bilkuran. Obraren behin-behineko likidazioa 307 milioikoa izan da; hau da, esleipen-prezioaren ehuneko zazpiko gehikuntza izan da. Obrako zuzendaritzak txosten teknikoak prestatu ditu, izandako desbiderapenak esplikatzeko.

Azpinarratzekoa da zuinketa-aktarik eta bide-ragarritasun-ziurtagiririk ez dela prestatu.

Kaleak zolatzeari

Administrazio-klausulen proiektua eta orria 1996ko abuztuaren 1eko osoko bilkurak onetsi zituen. Obra hau berezitatuko zortzi kale-sortak osatzen du, eta banan-banan esleitzen dira, lehia-keta-prozeduraren bitartez.

Ondoko koadroan zehazten da zeintzuk diren asfaltaturiko kaleak, lizitazio-prezioak, esleipenen zenbatekoa eta sorta bakoitzean eginiko gastuak.

Zenbatekoa (milakotan)

| Kalea | Lizitazioa | Esleipena | Likidazioa | Likid/Esleip. |
|------------------------------|------------|-----------|------------|---------------|
| Imberto eskultorea | 3.688 | 3.393 | 3.461 | 102% |
| Gaiteros kaleska | 4.755 | 4.470 | 3.542 | 79% |
| Santa Beatriz de Silva | 1.716 | 1.153 | 1.133 | 98% |
| Recoletos Bidegurutzeari | 5.279 | 4.567 | 5.871 | 129% (3) |
| Urederra Ibaiaren Enparantza | 1.405 | 950 | 731 | 77% |
| Cuenta Merkakondoa | 1.138 | 1.081 | 1.621 | 150% (2) |
| Pelaires kaleska | 2.682 | 2.278 | 2.377 | 104% |
| Cordeleros | 13.029 | 8.001 | - | - (1) |
| Guztira | 33.692 | 25.893 | 18.736 | |

- (1) Kale honetako zolaketa ez da egin, egun horietan aldatzen ari zen Babes eta Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren (BBBPP) barnean dagoelako.
- (2) Desbideraketak justifikatzen dituen txosten teknikoak egin da, baina ez da berriro esleipenik egin.
- (3) Ez da desbideraketan ondoriozko txosten teknikorik egin. Esleipenik ere ez da berriro egin.

Kultur Parkeko obrak

1995eko abenduaren 26an alkatetzak gonbitea luzatu zien hiru enpresari parte har zezaten Lizarako Kultur Parkean hainbat obra burutzeko premiazko izapidatze bidezko zuzeneko esleipen-prozeduran. Lizitazio-prezioa 20.253.048 pezetakoa zen, eta 96-1-18ko Gobernu Batzordeak 16.972.054 pezetatan esleitu zuen. Obra amaitzean aurkezturiko obra-ziurtagirietako zenbatekoa 17.703.363 pezetakoa da. Beraz, gehikuntza bat izan da, esleipen-prezioa ehuneko lauan gainditu duena.

Gazteria Etxea zimentatzea

Gobernu Batzordeak, 1996ko irailaren 19an eginiko ezohizko bilkuran, gazteria-etxerako zimentazio-obra zuzenean kontratatzeke eta premiazko izapidatzeko baldintza-sorta onetsi zuen, zenbatekoa 6.694.724 pezetakoa izanik. Esleipena 4.079.516 pezetatan egin zen, eta obrako likidazioa 6.073.696 pezetakoa da; horrek azaltzen du izan den gehikuntza esleipen-prezioaren ehuneko 49koa izan dela. Likidazio hori 1997ko apiri-

laren 30eko Gobernu Batzordean onetsi zen, obrako zuzendariaren azalpenen bitartez obra burutzean sorturiko zailtasunak aztertuz.

Espedienteak aztertuz, Udalak kontrataziorako foru-araudia funtsean errespetatu duela ondorioztatzen da; dena den, *gomendatzen dugu ez dadila hain maiz jo premiazko prozedurara, zuinketa-aktak eta bideragarritasun-ziurtagiriak egin daitezela galda dadila eta obrak burutzean suertatzen diren desbideraketekin Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritakoa aplikatzea.*

VI.6.5. Finantza-aktiboaren aldaketa

Ondoko koadroak agertzen du zer mugimendu gertatu diren 1996ko ekitaldian zehar langileriari emandako maileguei dagokienez.

| (milakotan) | | | |
|------------------------------------|-----------------|---------------|--------------------------------------|
| Zintzilik dauden maileguak 96-1-01 | Mailegu berriak | Amortizazioak | Zintzilik dauden maileguak 96-XII-31 |
| 5.450 | 5.900 | 4.290 | 7.059 |

Ekitaldian zehar emandako maileguak gastuen VIII. sailean (500.000 pezeta) eta aurrekontuz kanpoko kontusailean (264), epe luzerako mailegu gisa (5.400.000 pezeta), kontabilizatu dira.

Hauxe gomendatzen dugu: langileria-erentzako maileguetan izandako mugimenduak aurrekontu-kotzat hartuak izan daitezela.

VI.6.6. Zerga bidezko dirusarrerak

1996ko aurrekontuaren likidazioaren arabera, zerga bidezko dirusarreraren kontzeptuek honelako betetzea izan dute:

| (milakotan) | | |
|----------------------------------|----------------------------|-------------------------|
| Kontzeptua | Behin betiko aurreikuspena | Likidaturiko eskubideak |
| Zuzeneko zergak | 205.723 | 241.685 |
| Zeharkako zergak | 85.437 | 108.774 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 91.389 | 91.897 |
| Guztira | 382.549 | 442.356 |

1996an likidaturiko eta kontabilizaturiko zuzeneko zergak honako kontzeptu hauek izan dira: landa- eta hiri-kontribuzioa, lizentzia fiskala eta lursailen balioaren gehikuntza. Atal honek dirusarrerara guztien ehuneko 20 hartzen du, eta, 1995eko ekitaldiarekiko, ehuneko 4,6 egin du gora.

Zeharkako zerga gisa, zirkulazio-zerga, Telefónica-ko kanona eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga berria (EIOZ) kontabilizatu

dira. Atal honek udalaren dirusarreraren ehuneko bederatzia hartzen du, eta, aurreko ekitaldiarekiko, ataleko eskubide aitortuek ehuneko 101 egin dute gora, nagusiki EIOZa ezartzearen ondorioz.

Dirusarrerei buruzko III. sailean jasotako konzepturik garrantzitsuenak hirigintza-lizentziei eta kultur eta kirol jardueren, errail, zutoin, kable, pasabide, azoka, salmenta ibiltari, gainkargu eta isunen ondoriozko dirusarrerei dagozkienak dira. Tasek eta bestelako dirusarrerek gutxi gora-behera dirusarrera guztien ehuneko zortzi hartzen dute. 1995eko ekitaldiarekiko, dirusarrerek 80 milioiko murrizketa izan dute, EIOZa II. sailean kontabilizatu delako eta langileriaren ondoriozko dirusarrerak nahiz Jurramendiko Mankomunitateko finantza-karga IV. sailean kontabilizatu direlako.

Eginiko lanean oinarrituz, hauxe ikusi dugu:

- 1995eko ekitaldiko landa-kontribuzioa 1996an igorri eta kontabilizatu da, eta 1996 eta 1997koa 1997ko ekitaldian jarri da kobratzeko. Informatikako euskarririk ez edukitzeak justifikatzen du atzerapen hori.

- Lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zerga kontabilizatzeko erabilitako irizpidea Gobernu Batzordeak likidazioa onetsi dueneko datarena da. Horren ondorioz, 1995eko hainbat eskualdatze, 10.732.368 pezetako zenbatekoa dutenak, 1996an kontabilizatu dira, eta 1996ko hainbat eskualdatze, 9.006.689 pezetako zenbatekoa dutenak, 1997an kontabilizatu dira.

- 1995eko ekitaldiko irekiera-baimenak, 1.855.660 pezetako zenbatekoa biltzen dutenak, 1996an izan dira likidatuak eta dirusarrera gisa kontabilizatuak. Baina 1997ko ekitaldian kobratuko dira.

- Derrigorrezko dirubilketa-agenteak kobratu-ko eta laugarren hiruhilabetekoak diren gainkarguak, 1.016.669 pezetako zenbatekoa biltzen dutenak, errakuntza baten ondorioz 5.173.247 pezetako zenbatekoarekin kontabilizatu dira, kontrakontua aurrekontuz kanpoko idazpuru batean izanik. Bi zenbateko horien arteko aldeak -4.156.578 pezeta- aurrekontu-emaizta eta itxiera-uneke diruzaintzako gerakina doitu egin behar-ko litzuzke. Doikuntza hori 1997ko kontuetan egin da.

- Udalak kobratzeke gisa kontabilizatu ditu Kirol Patronatuko eta Almodí Taldeko hainbat banku-saldo, 1996ko abenduaren 31rako Udalaren diruzaintzara lekualdatuak izan ez direnak. Banku-kontu horiek ez daude udal-kontabilitatean sartuta.

Ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Zerga-dirusarrerak likidatzea horien sortzape-na gertatzen den unean.*

- *Kontabilizaturiko zenbatekoak aldiro erkatzea diruzaintzarekin, errakuntzak egiteari itzurtzeko.*

- *Udalaren banku-kontu guztiak diruzaintzako kontabilitatean sartzea, horrela saihestu ahal izateko benetan kobratu egin direnak kobratzeke gisa kontabilizatzeko.*

VI.6.7. Ohiko transferentziak eta kapital-transferentziak

Hirugarrenengandik jasotako transferentziek 1996ko ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 60 hartzen dute, eta funtzionamendu-gastuak finantzatzen dituztenak 523 milioikoak dira, aurreko urtearekiko gehikuntza ehuneko 15koa izanik. Bestalde, kapital-gastuak finantzatu dituztenak 196 milioikoak izan dira, aurreko ekitaldiarekiko gehikuntza ehuneko 39koa izanik.

Toki-ogasunen fondoa 20 milioi gehitu da 1995 urtearekiko, eta 1996ko ekitaldian 353 milioikoa da.

“B” sektorea urbanizatzea finantzatzeko partikularrek eginiko ekarpenak 164 milioikoak dira.

VI.6.8. Inbertsio errealak besterentzea

1996ko ekitaldian zehar kontzeptu honetan likidaturiko eskubideak 20.107.828 pezetakoak izan dira, eta dirusarrera guztien ehuneko bi hartzen dute.

Dirusarrera hauek irakasleen etxebizitzak saltzearen ondoriozkoak dira. 1996ko martxoaren 17ko Osoko Bilkuran onetsi zen etxebizitza horiek besterentzeko baldintza-sorta.

VI.6.9. Egoera-balantzea

Epigrafe honetako iritzitari buruz IV. atalean adierazitakoa gogoan edukiz, honako hau azpimarratu nahi dugu:

- Ondasun-inbentarioa Udalak berak egin zuen 1995eko abenduaren 31n. Ondasun higiezinaren zenbateko erregistratuak katastro-baloreei dagozkie, eta, gainontzeko ondasunetarako, erosketa-prezioa hartu da kontuan.

1996ko ekitaldiko inbertsioak ibilgetu materia-leko altatzat hartuak izan dira osoki, eta ez da egin ez kontzeptuen ez zenbatekoen inolako bereizketarik.

Udalak ez du egin inbentarioko ondasunetarako inolako amortizazio-dotaziorik.

- Langileriari emandako aurrerakinek eta Anim-sako akzioek osatzen dute epe luzearako ibilgetu finantzarioa.

- Zordunen epigrafeak jasotzen du ekitaldian eta aurreko ekitaldietatik kobratzeke dagoena. Diruzaintza-gerakinaren 1996ko ekitaldiko egoera-orrian kobrantza zalantzagarririkotzat harturiko saldo zordunak 137 milioi pezetakoak dira.

- Udaletxearen diruzaintza 23 banku-kontutan dago gauzatu. Sakabanaketa honek zaildu egiten du kontrola, erabilgarri buruzko aldiroko analisiak konplexuago bihurtzen ditu eta gutxieneko estalpen-saldoak mantentzera behartzen du.

- Epe laburrerako zorren saldoak osatzen dituzten aurrekontuz kanpoko kontusailak ez dira behar bezala erabiltzen, mugimendurik gabeko saldoak jasotzen dituzte eta aurrekontuan aurreikusitako behar diren kontzeptuetarako erabiltzen dira (dirulaguntzak, erregularizazioak). Prozesu horiek 1997koa ixtean burutzen ari dira.

Ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Ondasun-inbentarioa berrikustea, kontuan harturiko kontzeptu eta zenbatekoak gaurkotuz eta bereiztuz.*

- *Ibilgetuaren balioa zuzentzea, ekitaldia itxi arte inbertsioek jasandako benetako balio-galtzea kalkulatzuz.*

- *Finantza-entitate eta kontu korronteen kopurua murriztea, bakarrik ezinbestekoak direnak utziz eta saldo sinbolikoak mantentzen dituztenak eta/edo operatiboak ez direnak bertan behera utziz.*

- *Aurrekontuz kanpoko eragiketei dagozkien kontusailak berrikustea, saldo horien zuzentasuna egiaztatuz, eta antzinasunagatik edo gaizki kontabilizatuak izateagatik eskatuko ez diren saldoak erregularizatzea, aurrekontu arruntaren kargura.*

VI.6.10. Erakunde autonomoak

Lizarrako Udalak gaur egun honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- Musika Patronatua.
- Kirol Patronatua.
- Gizarte Ongizateko Patronatua.
- Almodí Kultur Zentroko Patronatua.

Musika Patronatua –25 milioi inguruko aurrekontua duena– alde batera uzten baldin badugu, beste hiru patronatuetan kudeaketa udal zerbitzuetatik egiten da, eta gastu eta dirusarreraren aurrekontu-kontsignazioak Udaleko aurrekontuan

sartuta daude. Ez dute jarduten indarreko araudiaren arabera eduki behar duten nortasun berekiarekin.

Ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

Kirol, Gizarte Ongizate eta Almodí Kultur Zentroko Patronatuen gaur egungo egoera aztertu eta argitzea, horiei araudian eta estatutuetan aurreikusitako autonomia emateko edo horiek desegitea eta euren jardura udal zerbitzuek beraiek bereganatzea erabakitzeke.

Julián Romano Musika Patronatua

- Lizarrako Udalak Julián Romano Musika Patronatua eratu zuen Kontserbatorioaren kudeaketa burutzeko helburu bakarrarekin. Kontserbatorioa autobus-estazio zaharraren eraikinean kokatuta dago, irakasketa-zentro gisa.

- 1996ko ekitaldiaren likidazioak 1.778.636 pezetako aurrekontu-emaizta positiboa agertzen du; aitorturiko obligazioak 23.359.576 pezetakoak dira, eta, likidaturiko eskubideak, 25.138.212 pezetakoak. Diruzaintzako gerakinak, 1996ko abenduaren 31n, 3.760.305 pezetako saldo positiboa agertzen du.

- Langileria-gastuek aitorturiko obligazioen ehuneko 66 hartzen dute, eta ondasun eta zerbitzuen erosketaren ondoriozko gastua ehuneko 22koa da.

- Tasen eta bestelako dirusarreraren ondorioz likidatutako eskubideak ehuneko 63koak dira, eta, ohiko transferentziak, ehuneko 36koak.

- Patronatuak, Udalak bezalaxe, gastu eta dirusarrerei buruzko 4. atalean 2,8 milioi pezetako zenbatekoa kontabilizatu du, Udalaren ekarpen gisa. Ez da fondo-mugimendurik sortu.

- Entitateak kobrantzak eta ordainketak bakarrik kontabilizatzen ditu. Kutxa-irizpidea aplikatzeak ez ditu Patronatuko egoera eta emaitza itxuraldatzen.

- 1996ko ekitaldian zehar 5.351.883 pezetako banku-kobrantza bat 5.590.960 pezetakoa izango balitz bezala kontabilizatu da. Alde hori ekitaldian amaieran doitu da.

Jarduerak burutzen direneko eraikinaren garbiketa-lanak birkontraturik daude, nahiz eta baldintza tekniko eta administratiboen orririk onetsi ez den, eta beharrezkoa den kontratua ere formalizatu ez den.

1996ko ekitaldian zehar, lokalak okupatzeagatik tasa gisa, 1995 urteari zegokiona aplikatu da.

Aurreko lerroaldeak ikusirik, honako hau gomendatzen dugu:

- *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren irizpideari jarraituz kontabilizatzea, hau da, gastuak eta dirusarrerak egotzi behar zaizkio horiek gertatu diren ekitaldiari.*

- *Aldiro, kontabilitateko eta diruzaintzako adosteak egitea, egoki diren kontaketak eta banku-berdinkatzeak eginez, beharrezkoa balitz.*

- *Eraikina garbitzeko zerbitzuaren esleipen-hartzaile den enpresarekin egoki den kontratua formalizatzea.*

- *Patronatuaren lokalak okupatzeari dagokionez, ekitaldian indarrean dauden ordenantzak aplikatzea.*

VI.6.11. Hirigintza

Gai honi buruzko arau-multzo juridiko orokorra honako hauetan dago gauzatu: Lurzoruari buruzko 1990eko Legea; Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duen 1992ko Errege Dekretu Legegilea; Lurzoruaren Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 1994ko Foru Legea eta ekainaren 7ko 5/1996 Lege Dekretua, lurzoru arloko neurri liberalizatzaileei buruzkoa. Beranduago, Konstituzio Auzitegiaren 61/97 epaiak, martxoaren 20koak, Lurzoruari buruzko Legearen zatirik handienaren konstituziokontrotasuna edo deuseztasuna deklaratu zuen.

Epai horren ondorioz, hirigintza-arloan berez konplexua den araudia oraindik konplexuago bihurtu da gaur egun, epai horrek deuseztu egin baitu Estatuko indarreko legediaren zati handi bat, eta horren eragina autonomi araudietara hedatzen da.

Hori dela-eta, lan honetan, Irismenari buruzko III. epigrafean azaldu bezala, 1996ko otsailean behin betiko onetsi zen Hirigintza Antolamenduari buruzko Plan Orokorraren analisi orokor bat egin dugu, jarduketa zehatzei buruzko egiaztaketarik egin gabe, jarduketa horiek, beren ezaugarriak direla-eta, txosten honen helburutik at baitaude.

Plan horrek, lan hau egin bitartean, ez du funtsezko aldaketarik jasan. Xehetasunezko azterlanak eta hirigintza-proiektuei, lurzoru urbanizaga-

ria sustatzeari, konpentsazio-batzordeei eta abarri buruzko sektore-planak ere burutu dira.

Jarduketa-programak guztira 12 jarduketa aurreikusten zituen, bi laurtekoetan burutu beharrekoak, horien zenbatekoa guztira 1906 milioikoa izanik: 984 milioi lehen laurtekoan eta 922 milioi bigarrenean. Aurreikusitako jarduketak ondoko koadroan xehekaturik agertzen dira:

| (milakotan) | | | |
|--------------------|----------|---|-----------|
| Jarduketa-zenbakia | Unitatea | Kontzeptua | Guztira |
| 1 | SGV | Trenbideko zubia | 300.000 |
| 2 | SGV | Fray Diego zubia eta lotunea | 350.000 |
| 3 | SGV | Volante-ko bidegurutzea | 59.500 |
| 4 | 18 | Merkatondoa urbanizazioa | 157.500 |
| 5 | 5-2 | El Puy urbanizazioa | 164.500 |
| 6 | 6-2 | Koartela | |
| 7 | SGV | Santiago enparantza | 79.000 |
| 8 | SGV | San Agustin bidegurutzea eta aparkalekuak | 52.500 |
| 9 | 11 | Kultur parkea | 200.000 |
| 10 | SFZV | Los Llanos parkea | 450.000 |
| 11 | 20-7 | Igerilekua | 50.000 |
| 12 | SGV7 | Cordeleros | 43.300 |
| Guztira | | | 1.906.300 |

Gaur egun, zerbitzu teknikoek eskainitako informazioaren arabera, hasitako jarduketak 7,9 eta 12 zenbakiak dituztenak dira. Hau da, jarduketa-programaren betetze-erritmoa motela da.

1997ko abenduaren 4ko osoko bilkurak, aho batez, erabilera bereizgarri orokorrak homogeneizatzeko koefiziente-taula partzialki aldatu zuen.

Hirigintza-jarduketarako programaren exekuzioa baliabide ekonomikoek ahalbidetzen duten neurrian azkartu dadila gomendatzen dugu.


Lan hau egitearen arduradun den Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskari jaunak hala proposatuz eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde


ERANSKINAK:

1.- UDALAREN ORGANIGRAMA, 1996KO ABENDUAREN 31N.



F= Funtzionarioak
LAAAB= Lan kontratupekoa, aldi baterakoa
LAFLP= Lan kontratupekoa, linkea, lanaldi partzialekoa
LAAALP= Lan kontratupekoa, aldi baterakoa, lanaldi partzialekoa
(Z.B.)= Zerbitzu bereziak, M.A.M.en
(Esz)= Eszedentzia

2.- MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUAREN ORGANIGRAMA, 1996KO ABENDUAREN 31N.



LAAB= Lan kontratuekoko, aldi baterakoa
 LAFE: Lan kontratuekoko, finikoa, ezjarria
 (1): Lizarrako Udaleko langileria

| | |
|---|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA |
|---|--|